

**BUELTARAKO**  
BERRIRO IREKITZEKO  
BIZKAIKO  
MUSEOETAN  
HARTU BEHAR  
DIREN NEURRIEN  
PROPOSAMENA



# AURKIBIDEA

## **1. SARRERA** \_\_\_\_\_ **04.** ORRIA

1.1 AGIRIAREN HELBURUA

## **2. NEURRIEN PROPOSAMENA** \_\_\_\_\_ **08.** ORRIA

2.1 LANGILEAK

2.2 ESPAZIOAK

2.3 BILDUMA

2.4 PUBLIKOA

## **3. MUSEOEN ETORKIZUNARI BURUZKO GOGOETA BATZUK** \_\_\_\_\_ **34.** ORRIA

KONTSULTATUTAKO

DOKUMENTAZIOA

ESKERRAK

01

**SARRERA**

## 1.1 AGIRIAREN HELBURUA

Euskal gizartea, orokorrean, ahalegin handia egiten ari da SARSCoV-2 birusak sortutako osasun-krisiari aurre egiteko. Konfinamendua amaituta, normaltasuneranzko **trantsizio ordenatu bat** proposatzen dugu; prozesu horretan, infekzioaren kontrol sanitarioak izango du lehentasuna, batez ere, gaixotasunaren agerraldi gehiago edo osasun-sistemaren kolapsoa saihesteko. Izan ere, horrek ekarriko luke irteten hasi garen kofinamendu orokorreko egoerara itzultzea.

Gure museoak eta erakustaretoak berriro irekitzeari dagokionez ere, beharrezkoa da **normaltasuna** apurka-apurka **berreskuratzea**; baina normaltasunerantz **segurtasun-baldintzetan** igarotzeko neurriak behar ditugu, eta, jakina, EAEko erakundeen eta museo-erakundeen konpromisoa eta koordinazioa ere bai.

lido horretan, gure museoak eta erakustaretoak berririo irekitzeko adostutako gomendio orokorrak honako hauek dira:

- Saihestea pertsonak masiboki pilatzea edo pertsona arteko ukipen fisikoa.
- Pertsona artean 2 metrotik gorako urruntze fisiko bat ziurtatzea.
- Osasun Sailak gomendatutako neurri higieniko guztiak bete eta bermatzea.

Halaber, beheragoko agirian, museoak berririo irekitzeko neurrien proposamen bat azaltzen da.

Agiriak erabilgarri izan nahi du Bizkaiko museo guztientzat, eta, horretarako, haietan guztietan aplikatu daitezkeen alderdi eta gidalerro orokor batzuk ezartzen ditu. Baina Bizkaiko Lurralde Historikoko museoen tipologia desberdina denez gero, komeni da agiriak ahalbidetzea zentro bakoitzak jarduketa-marjina bat izan dezan, lehen adierazi diren ohar orokorretatik abiatuta. Gure ustez, hori da modu bakarra agiria erabilgarria eta interesgarria izan dadin lurraldeko zentro guztientzat.

Agiria egiteko, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak idatzitako proposamen-dokumentutik abiarazi da, eta Lorea Bilbao diputatuak haren alde egin du Bizkaiko museoekin 2020ko apirilaren 28an egindako bileran. Gainera, agiria 36 museoek eta kultura-ondarearekin lotutako zentrok egindako ekarpenarekin osatu da. Halaber, autonomia-, estatu- eta nazioarte-mailako kultura-erakunde batzuek idatzitako dozena bat dokumentu kontsultatu dira.

Azkenik, lehen paragrafoetako baieztapenetara itzuliz, zenbait neurri ematen dira zerrenda batean, proposamen gisa; baina komeni litzateke **zentro bakoitzak bere langileentzako eta instalazioak erabiltzeko kontingentzia-plana egitea, ekipamenduaren ezaugarriak kontuan hartuta**, uneoro osasun-arloko xedapenak eta bestelakoak betetz.

Gure ustez, museoak apurka-apurka ireki behar dira, faseka; beraz, agiri honetan jaso behar dira berriro irekitzeko fase guztiak. Gainera, malgua izan behar du kontuan hartzen dituen gaiei dagokienez, eta berrikusi eta berriro definitu behar da agintariak arau berriak eman ahala

Neurriak ezartzeko prozesu orotan garrantzitsua da koordinatuta egotea museoetan zerbitzua ematen duten kanpoko enpresekin. Halaber, museo bakoitzaren erabilera-plana idaztean, lankidetzan lan bat egin beharko da kanpoko enpresekin.

Azken hitza Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak du, zeinaren gidalerroak kontuan hartu beharko diren. Hortaz, baliteke momenturen batean —betiere helaraz diezazkiguten oharrei jarraituz— egokitzapenak/aldaketak egin behar izatea irekitze-prozesuan zein ondorengo funtzionamendu-arauetan.

Eskuartean dugun proposamen hau trantsizio-aldirako da, eta museo bakoitzak bere ezaugarrietara egokitu beharko ditu neurriak, bai eta dagoen udalerraren egoerara ere.

02

**NEURRIEN  
PROPOSAMENA**



Neurrien proposamenerako, museoek eginkizunaren lau alderdi hartu dira aintzat: langileak, eraikinak, bilduma eta publikoak. Eta lau alderdi horietako bakoitzarekin lotuta hartu beharreko neurrien proposamenak adierazi dira.

Baliteke alderdi batzuk atal horietako batekin baino gehiagorekin lotuta egotea; beraz, erabaki da edo proposamena bikoiztea eta atal batean baino gehiagotan jasotzea (adibidez: eraikinean hartu beharreko neurriek eragina dute bisitetan; haien garrantziagatik sartu dira atal bietan), edo neurriak lotuen daukan atala aukeratzea eta atal horretan jasotzea.

## 2.1 LANGILEAK

### LANTOKIRA JOAN AURRETIK

---

Langileei dagozkien neurriei dagokienez, gomendio eta gidalerro hauek ezartzen dira, oro har:

- Ez joatea lantokira COVID-19arekin lotutako sintomarik izanez gero (eztula, sukarra, arnasa hartzeko zailtasuna, e.a.) **edo COVID-19ak jotako pertsona batekin harreman estua izan bada (bizikideak eta senideak, eta gaixotasunak jota eta sintomekin dagoen pertsona bat egon den leku berean harengatik 2 metro baino hurbilago egon diren pertsonak, baldin eta gutxienez 15 minutuz egon badira egoera horretan)**. Kasu horretan, beharrezkoa izango da familia-medikuarekin harremanetan jartzea. Berdin jardungo da COVID-19ak jotako batekin kontaktu estua izan bada.
- **Langile bereziki kalteberatzat jotakoek edo balorazioa behar duen patologiaren bat duten langileek harremanetan jarri beharko dute Lan Osasunerako Atalarekin.**

### PREBENTZIO-NEURRI OROKORRAK

---

**Ezinbestekoa da higiene pertsonaleko neurri guztiak indartzea lan-eremu guztietan eta birusaren eraginpeko edozein egoeraren aurrean. Ildo horretan, beharrezko bitarteko guztiak emango dira langileek egoki eta jarraibide hauek betez beren burua apaindu ahal izateko.**

**Bereziki, honako neurri hauek nabarmendu behar dira:**

- Museoa irekita mantentzeko behar diren langileen kopurua zehaztea eta erabakitzea zeinek lan egin dezaketen etxetik.
- Prebentzio Zerbitzuak langileen arrisku-maila ebaluatuko du, eta babes-ekipo egokiak erabiltzeko aginduko, beharrezkoa balitz.
- Ahal dela, ez egitea bilera fisikorik.
- Eskuak maiz eta ondo garbitzea da infekzioa prebenitzeko eta kontrolatzeko neurri garrantzitsuena.

Eztula eta doministiku egitean sudurra eta ahoa zapi batez

estaltzea, eta zapia estalkia eta pedala dituen zakarrontzi batera edo itxi daitekeen zabor-poltsa batera botatzea. Zapiarik eduki ezean, ukondoaren barrualde erabiltzea, eskuak ez kutsatzeko.

- Ez ukitzea begiak, sudurra edo ahoa.
- Neurriak hartzea museoeko bisitarien arteko eta langileen arteko urruntze fisikoa betetzeko: manparak, zoruko seinaleak, e.a.

Bestalde:

- Gomendatzen da azalerak (erakusmahaiak, kontsulta-mahaiak, komunak...) sistematikoki eta maiz garbitzea.
- Ahal dela, ateak irekita uztea.
- Guztiok erabiltzeko diren elementuetarako ezarritako arauak beteko dira (fotokopiagailuak, eskanerra...), halakoak erabili aurretik eta ondoren gelak erabili edo eskuak garbitzearen garrantzia azpimarratuz.
- Lanerako mahaietan lana egiteko ezinbestekoak diren elementuak eta materialak baino ez dira edukiko. Lanaldia amaitzean, kendu egingo dira tiraderetan edo armairuetan gorde daitezkeen dokumentuak eta gauzak, garbiketako langileek egin behar duten desinfekzio-lana errazteko.
- Komeni da dokumentazio fisikoa sortu eta trukatzeko saihestea edo gutxitzea; horretarako, dokumentu digitalak sustatuko dira.

Edozelan ere, **beharrezkotzat jotzen da** osasunerako zein segurtasunerako ezarritako protokoloak **argi eta sarritan komunikatzea**. Museoa ireki aurretik, ezartzea nola mugatuko den pertsona arteko ukipena, nola kontrolatuko den bisitari-kopurua eta/edo zer bitartekoren bidez debekatuko den museoeko leku batzuetarako sarbidea. Jarraibideak ematea erraz bistartzeko eta jarraitzeko.

Garrantzitsua da bisitariari segurtasuna eta konfiantza ematea, hau da, erakustea museoa arriskuetatik libre dagoen espazio bat dela, museoaren barruan zein kanpoan hartutako osasun- eta higiene-neurriak azalduz (adb.: kartelak erabil daitezke). Sare sozialetan eta komunikabideetan egoera berria eta bisita-baldintzak iragartzea. Jarraitzen diren garbiketako-protokoloen eta Osasun Sailaren gomendioen berri ematea.

Langileak lantokira itzultzen direnean, neurriak hartuko dira itzultzeko prozesua apurka-apurka egiteko, txandak ezartzeko, telelana sustatzeko eta familia eta lana bateragarri egitea bermatzeko.

Enplegatuak lantokira itzultzeko momentuari eta moduari buruzko proposamenak egitea errazteko, atal honetan adierazten ditugu, adibide moduan, BizkaikOA foru-sareko museoetako langileak direla-eta hartzen ari diren ebazpenak. Edozelan ere, zentro bakoitzak bere lege-, kontratu- eta arau-eremuaren barruan egokien deritzen neurriak hartu ahal izango ditu.

Baina, txosten honen helburutik harago doakeen arren, bereziki garrantzitsua da gogoratzea langileek ez dutela lantokira joan behar COVID-19arekin zerikusia izan dezakeen sintomarik izanez gero (eztula, sukarra, arnasa hartzeko zailtasuna, e.a.) eta halakoetan harremanetan jarri beharko dutela familia-medikuarekin. Berdin jardungo da COVID-19ak jotako batekin kontaktu estua izan bada.

Ondoren, zentro bakoitzak bere kontingentzia-eskuliburuan jaso ditzakeen neurri zehatzen proposamen batzuk emango ditugu:

## LANGILEAK ITZULTZEA

---

### Langileen prestakuntza

- COVID 19ari buruzko prestakuntza orokorra.
- Garbiketari buruzko oinarrizko jarraibideekin lotutako zenbait alderdiren arloko prestakuntza.
- NBEak biltegitatu, erabili eta deuseztatzeko prestakuntza.
- Langileentzako informazio-kartelak, hartu beharreko neurri orokorrak jasotzen dituztenak.

### Langileak babes-osagaiz hornitzea

- Maskarak
- Eskularruak
- Gelak
- Manparak.

### **Langileek hartu behar dituzten neurriak**

- Eskuak sarri garbitzea.
- Maskarak baliatzea beste batzuekin batera erabiltzen diren lekuetan.
- Eskularruekin lan egitea.
- Ordenagailuak (finkoak zein eramangarriak) erabili eta garbitzeko arauak.
- Mahaiak eta altzariak erabili eta garbitzeko arauak.

### **Lan-espazioak berrantolatzea**

- Espazioak berrantolatzea langileen arteko segurtasuneko gutxieneko distantziak bermatzeko.
- Espazio-faltagatik ezinezkoa bada:
  - Ohikoak ez diren beste espazio batzuk egokitzea.
  - Langileen artean txandak antolatzea, telelana lagun.

### **Guztiok erabiltzeko diren elementuak saihestea**

- Aurrez aurreko bileren ordez, bideokonferentzia bidezko bilerak egitea.
- Guztiok erabiltzeko espazioetan langileak pilatzea saihestea.
- Telefonoak (finkoak zein eramangarriak) erabili eta garbitzeko arauak.
- Telefono bidezko arreta emateko, norberaren kaskoak jartzea.

### **Lan-ordutegi murriztua ezartzea.**

#### **Langileak lantokira modu mailakatuan sartu eta irtetea.**

**Lanpostura iristeko ibilbide bat ezartzea, langileak gurutzatu ez daitezen.**

**Gida, atezain, zaindari eta bestelakoen eskudantziak zehaztea, bisitariak arauak betetzen ez dituzten kasurako.**

**Kontrolerako eta neurriak oro har betetzen direla ziurtatzeko arduradun bat izendatzea. Haren eskumenak zehaztea.**

## 2.2 ESPAZIOAK

### GARBIKETA

---

**Ardura duten langile propioekin batera ezartzea garbitasuneko protokolo egokiak.**

**Kontratutako kanpoko enprekin batera ezartzea garbitasuneko protokolo egokiak.**

**Arreta berezia jartzea espazio guztiak garbitzeko neurrietan.**

- Garbitze- eta desinfektatze prozesu guztiak NBEak erabilita egingo dira, langileen segurtasuna bermatzeko.
- Halaber, saihestu behar dira produktuen nahasketak, aurretik ez bada jakiten bateragarriak diren. Adibidez, lixiba (hipoklorito sodikoa) eta amoniakoaren arteko erreakzio ezaguna, toxikotasun altuko baporeak aineratzen dituena.
- Balio historikorik edo artistikorik ez duten azalerak (lurzoruak, ateak edo maratilak) garbitzeko, osasun-agintariek proposatutako soluzio desinfektatzaileak erabiliko dira; baina, lehentasunez, % 70ean disolbatutako etanola baliatuko da.
- Garbitze-lan sakona eta desinfekzioa, ireki aurretik.
- Guztiok erabiltzeko diren espazioak, igarotze-eremuak eta komunak sakonago garbitzea.
- Komunitateko papera-banatzaileak.
- Eskuak desinfektatzeko gel-banatzaileak jartzea areto guztietan.
- Arreta berezia jartzea ukipen-pantailak garbitzeko lanetan.

### KANPOKO ESPAZIOAK

---

Bisitariak pilatzea saihesten bada eta urruntze fisikoa bermatzen bada, museoen kanpoko aldeak erabil daitezke, bai bisitarien joan-etorriak antolatzeko, bai bisitarien atseden hartzeko edo aisialdirako; areago, bestelako jardueretarako balia litezke, hala nola zentroaren barrura sartu aurretik bisita prestatzeko, edo bisita amaituta haren osagarri gisa. Errespetatu beharrekoak izango dira, beti, erakundeek eta tokiko araudiek erabakitzen dutena.

- Ukipena saihesteko, aparkalekuan edukiera-mugak markatzea.
- Kanpoko jokoetarako espazioak ixtea.
- Kanpoko espazioak bisitaren barruan sartzea, eta barrukoen espazio osagarri gisa erabiltzea.
- Hartu beharreko neurriei buruzko kartelak jartzea kanpoko espazioetan ere.
- Hartu beharreko neurriei buruzko kartelak jartzea barruko espazioetan.

## **BARRUKO ESPAZIOAK**

---

### **Guztiok erabiltzeko diren elementuak ukitzea saihesteko neurri orokorrak:**

- Ahalik eta ate gehien irekita edukitzea (sarrera/irteera, komunak).
- Aterki-ontzi automatikoak.
- Estalkia duten paperontziak, pedalari eraginez irekitzen direnak, plastikozko poltsekin, zeinak gero edukiontzira botako diren. Hondakinak eramateko eta paperontziak desinfektatzeko lanak garbiketa-enpresak egingo ditu, sarritan.

### **Bisitarien artean konfiantza sortzeko neurriak:**

- Instalazioen kalitate-zigilua sortzea.
- Garbitasunaren kalitate-zigilua sortzea.

### **Pertsona arteko ukipena murrizteko neurriak:**

- Erakusmahaietan manparak instalatzea.
- Segurtasuneko gutxieneko distantziak ezartzea.
- Itsasgarri bidez zehaztutakoak.
- Kartel bidez zehaztutakoak.
- Distantziak osagai fisikoak (piboteak, mahaiak...) jarritz zehaztutakoak.
- Likido desinfektatzailea duten tapizak.

## **BISITAK ETA BISITARIAK KUDEATZEA**

---

### **Museoko areto bakoitzaren edukiera mugatzea; gehienez, % 30, COVIDaren aurreko zenbakiekin konparatuta.**

- Gehieneko horren barruan, espazio bakoitzak bere edukierak mugatuko ditu er abilgarri dagoen espazioaren arabera.

### **Areto guztietan hartu beharreko babes-neurriei buruzko informazio-kartelak jartzea.**

- Kartel laburrak eta erraz ulertzeko modukoak (piktogramak...) jartzea

### **Guztiantzat diren lekuen kudeaketa**

- Pertsonak museo barruko mugimenduetan eta ilaretan kudeatzeko prebentzio-neurriak hartzea
- Kartelak erabiltzea
- Bitarteko autoitsaskorrak erabiltzea
- Bitarteko fisikoak erabiltzea (piboteak, zintak...)

### **Kamera termografikoak instalatzea**

### **Kartel gehiago jartzea erakusketa iraunkorrean**

### **Areto bakoitzerako megafonia indibiduala instalatzea**

### **Bildumako osagaietarako eta/edo erakusketa-espazioetarako distantzia markatzea.**

- Kartelak erabiltzea
- Bitarteko autoitsaskorrak erabiltzea
- Bitarteko fisikoak erabiltzea (piboteak, zintak...)

### **Bisitarien zirkulazioaren noranzko bakarra definitzea**

- Igogailuen erabilera



- Larraldietako ateak erabiltzea, sartzeko/irteteko erabili ohi den atearen ordezt
- Zirkulaziorako «erreiak» ezartzea
- Kartelak erabiltzea
- Bitarteko autoitsaskorrak erabiltzea
- Bitarteko fisikoak erabiltzea (piboteak, zintak...)
- Gezi bidez seinaleztatzea ibilbidea zein noranzkoa

## **KAFETEGIAK ETA DENDAK**

---

### **Langileak babes-osagaiz hornitzea:**

- Maskarak.
- Eskularruak.
- Gelak.
- Manparak.

### **Langileek hartu behar dituzten neurriak**

- Eskuak sarritan garbitzea.
- Maskarak baliatzea beste batzuekin batera erabiltzen diren lekuetan.
- Eskularruekin lan egitea.

### **Langileen prestakuntza**

- COVID 19ari buruzko prestakuntza orokorra.
- Garbiketari buruzko oinarrizko jarraibideekin lotutako zenbait alderdiren arloko prestakuntza.
- NBEak biltegitatu, erabili eta deuseztatzeko prestakuntza.
- Langileentzako informazio-kartelak, hartu beharreko neurri orokorrak jasotzen dituztenak.

### **Garbiketa**

- Ardura duten langile propioekin batera ezartzea garbitasuneko protokolo egokiak.

- Kontratututako kanpoko enprekin batera ezartzea garbitasuneko protokolo egokiak.
- Arreta berezia jartzea espazio guztiak garbitzeko neurrietan.
  - Ireki aurretik garbitze-lan sakona egitea, desinfektatzea.
  - Guztiok erabiltzeko diren espazioak, igarotze-eremuak eta komunak sakonago garbitzea.
  - Komunitateko paper-banatzailak.
  - Eskuak desinfektatzeko gel-banatzailak jartzea areto guztietan.
  - Arreta berezia jartzea ukipen-pantailak garbitzeko lanetan.

### **Edukierak mugatzea; gehienez, % 30, COVIDaren aurreko zenbakiekin konparatuta.**

- Gehieneko horren barruan, espazio bakoitzak bere edukierak mugatuko ditu erabilgarri dagoen espazioaren arabera.

### **Hartu beharreko babes-neurriei buruzko informazio-kartelak jartzea.**

- Kartel laburrak eta erraz irakurtzeko modukoak (piktogramak...) jartzea.

### **Guztiok erabiltzeko elementuak ukitzea saihesteko neurri orokorrak.**

- Ahalik eta ate gehien irekita edukitzea (sarrera/irteera, komunak??)
- Aterki-ontzi automatikoak.

### **Pertsona arteko ukipena murrizteko neurriak**

- Erakusmahaietarako manparak instalatzea.
- Pertsonak museo barruko mugimenduetan eta ilaretan kudeatzeko prebentzio-neurriak hartzea.
  - Kartelak erabiltzea.
  - Bitarteko autoitsaskorrak erabiltzea.
  - Bitarteko fisikoak erabiltzea (piboteak, zintak...)

## Produktuen ordainketa

### - *Ordainketa bitarteko elektronikoen bidez egitea sustatzea.*

Bitarteko elektronikoen bidez ordaintzeko jarduketa-protokoloa:

- Txartel bidez ordaintzea sustatzea.
- Aplikazio elektronikoen bidez (BIZUM...) ordaintzea sustatzea.
- Sakelako telefonoaren bidez ordaintzea sustatzea.

### - *Eskudirutan ordaintzeko jarduketa-protokoloa:*

- Sarrerak ordaintzeko emandako dirua harreragileak hartuko du, eta kutxa batean gordailutuko da zirrikitu batetik. Inork ez du ukituko diru hori 24 orduko epean; une horretan autodesinfektatuta egongo da.
- Langileek erretilu batean emango dituzte produktuak eta diru-aldaketak; erretilua erabilera bakoitzaren ondoren desinfektatuko da.

## Dendan egindako salmentak

### - *Dendako produktuak on line saltzea sustatzea:* On line saltzeko plataforma sortzea.

### - *Ordainketa bitarteko elektronikoen bidez egitea sustatzea.*

Bitarteko elektronikoen bidez ordaintzeko jarduketa-protokoloa.

- Txartel bidez ordaintzea sustatzea.
- Aplikazio elektronikoen bidez (BIZUM...) ordaintzea sustatzea.
- Sakelako telefonoaren bidez ordaintzea sustatzea.

### - *Eskudirutan ordaintzeko jarduketa-protokoloa:*

- Sarrerak ordaintzeko emandako dirua harreragileak hartuko du, eta kutxa batean gordailutuko da zirrikitu batetik. Inork ez du ukituko diru hori 24 orduko epean; une horretan autodesinfektatuta egongo da.
- Langileek erretilu batean emango dituzte produktuak eta diru-aldaketak; erretilua erabilera bakoitzaren ondoren desinfektatuko da.

## 2.3 BILDUMA

Bildumen kontserbaziorako neurrien proposamenei heldu aurretik, interesgarri deritzogu alderdi hauei buruzko aurretiazko gogoeta batzuk azaltzeari: COVID-19a eta objektuen azaleretan izan dezakeen iraunkortasuna, eta zer kasutan eta baldintzatan garbitu, desinfektatu edo isolatu behar diren birusak oraindik egon daitekeen objektuak edo espazioak, edo museo-erakundeetan gerta daitekeen berrinfektatze-kasu batean.

Cure asmoa ez da luze jardutea gaixotasunarekin lotutako gai orokor edo partikularrei buruz; beraz, museo-eremuko lanean eragina duten gaiei baino ez diegu helduko, labur, ahaztu gabe zaharbertitze atal bat dagoela Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiko Ondare Zerbitzuan eta museo-arloko erakunde eta arduradun guztiek jo dezaketela atal horretara bakoitzaren kasuei buruzko gai teknikoagoak aztertzeke.

Osasun-arloko agintariek baieztatu dute koronabirus berri batek sortutako pneumonia-agerraldi baten aurrean gaudela. Birusa zehatz ezagutzen ez bada ere, beste infekzio biriko batzuen analogiagatik ematen du transmisioa bi bideren bidez gertatzen dela: kutsatutako pertsona batekin egoteagatik edo birusa oraindik egon daitekeen azalera ukitzeagatik. Badakigu birusa kutsatu daitekeela gaixo batek eztula edo doministiku egitean sortzen dituen arnas-aparatuko jariakinetatik oso hurbil egoteagatik. Jariakin horiek beste pertsona bat kutsatuko lukete haren sudurra, begiak edo ahoa ukituz gero.

Birusak dituen gotikulak gauzen eta jendea dagoen espazioetan geratu daitezke. Azterlan batzuk kontsultatuta, ondoriozta daiteke zenbat denbora egon daitekeen bizirik birusa azalera desberdinen arabera.

METALA	5 EGUN
EGURRA	4 EGUN
PAPERA	4-5 EGUN
BEIRA	4-5 EGUN
PLASTIKOA	6-9 EGUN
ZERAMIKA	5 EGUN
HARRIA	2-12 EGUN

Liburutegietan eta museoetako agiritegietan dagoen ondare bibliografiko eta dokumentalari dagokionez, gomendioen arabera, komeni da dokumentuak koarentenan mantentzea, 3-9 egun bitartean. Liburutegi-arloaren ikuspegitik, gomendatzen da epe hori 14 egunera luzatzea, seguruago egoteko birusa ez dela transmitituko.

### **Ondare higigarria garbitzeko prozedura**

- Ez da gomendatzen fumigazio edo ihinztapen orokorrak egitea museo-aretoetan, agiritegietan edo elizetan, besteak beste.
- Garbitze-prozeduretan, bisitariak ukitu dituzten beira-arsen kanpoaldeko azalerak ere sartuko dira. Ez da beharrezkoa izango ezain neurri-mota hartzea beira-arsen barruko espazioan; izan ere, espazio horretarako sarbidea erakundeko langile espezializatuek baino ez dute.
- Desinfekzio- eta garbitze-lana eginda, garbitutako espazioak aireztatuko dira, disoluzio desinfektatzaileen lurrunzetik sortutako konposatu organiko lurrunak (COVak) metatu ez daitezela.
- Ondasunekin zuzeneko ukipena saihesteko arestian adierazitako gomendioa museoetan, agiritegietan edo erlijio-esparruetan ere ezarriko da.

### **Kultura-ondasun higiezinak garbitzeko prozedura**

- Funtsezkoa da garbitze-lanetan erabili beharreko produktuen izaera eta osaera eta produktuok aplikatuko diren kultura-ondasunarenak ezagutzea, bien arteko bateragarritasuna baloratzeko.
- Garbitze- eta desinfektatze-prozesuei buruzko zalantza izanez gero, onena da tratamendurik ez aplikatzea, konpon ezinezko kalteak sor baitaitezke kultura-ondarearen gainean. Gomendagarriena da neurri guztiak kontserbazio-zaharberritzearen arloko profesionalekin adostea.
- Kultura-ondasunetatik hurbileko espazioak (hirigune historikoak, plaza publikoak, parkeak edo kaleak) ihinztapen bidez desinfektatzeko lanetan saihestuko da balio historiko-artistikoko objektuak eta eraikinak zuzenean ziprizzintzea.
- Kultura-ondasunen zuzeneko ingurunean (metro bateko distantziatik baino hurbilago, hurbileko espaloietan eta

eraikinetako zokaloetan, adibidez), uretan %70ean disolbatutako etanol-disoluzio bat ihinztatuko da, presio baxuan.

- Ahal dela, ez da tratamendu desinfektatzailerik egingo kultura-ondasun polikromatuen (elizetako portalak edo erretaulak, adibidez) inguruan; askoz gomendagarriagoa izango da perimetroan hesiak jartzea, pertsonak ez hurbiltzeko eta pertsonen zuzeneko ukipena saihesteko.
- Inoiz ez da gomendagarria kultura-ondasunak zuzenean ukitzea; baina gomendio hori are beharrezkoagoa da oraingo egoera honetan. Birusa gizakietan baino ezin da garatu, baina azalaren gainean birus-zatikiak (zuzeneko ukipenetik edo txistutik datozenak) geratzea kutsatze-foku bat izan daiteke. Bidez batez, hala saihestuko da garbitzeko edo desinfektatzeko produktuak erabiltzea kultura-ondasunen gainean

### **Kultura-ondasunen eskuztatzea eta tratamendua, koronabirusa kutsatzeko arriskuak dirauen bitartean.**

Lantokietara lan egitera itzultzearen ondorioz, profesional-taldeek, hainbat espaziotan, bildumak ukitu eta eskuztatuko dituzte, besteak beste, kontserbatzaile eta zaharberritzaileek, garraio- eta museografia-enpresek, zentroetako liburutegien erabiltzaileek eta ikertzaileek.

- Epe honetan ahalik eta gehien mugatuko da kultura-ondasunak eskuztatzea, kutsadura saihesteko. Ondasunaren izaeraren, neurriaren, hauskortasunaren eta/edo eskuztatze-zailtasunaren arabera, ukatu ahal izango dira, aldi baterako, kultura-ondasun horren zirkulazioa eta mugimendua.
- Zentroko langileek edo ondasunak isolatzeko kontratatu diren kanpoko enpresek eskuztatu dituzten kultura-ondasunen erregistroa. Aldi baterako erakusketa batean, zaharberritzeko tailer batean, liburutegien arteko maileguan edo antzeko beste egoera batean egoteagatik jatorri-zentroetatik kanpoan izan diren kultura-ondasunen kasuan, komeni da erakundeetara itzultzen direnean koarentena-aldian egotea, bilgarria kendu ondoren.

## **A/** **BITARTEKOAK**

- Maskara erabiltzea (mediku-arrazoiengatik komeni ez denean izan ezik)
- Erabili eta botatzeko eskularruak, erabilera bakarrekoak, ahal dela, nitritozkoak.
- Mantalak erabiltzea.

Garrantzi handikoa da teknikariek zaintzea kultura-ondasunak ukitu ditzakeen material guztia (orgak, erretiluak, e.a.) erabili aurretik eta ondoren garbitu eta desinfektatzen dela, bai eta beste objektu batzuk ukitu edo beste teknikari batzuek ere erabiltzen dituzten gainerako tresnen kasuan ere: biltegietako sarreretako erregistro-liburuak, kultura-ondasunak babesteko edo biltzeko materiala, partekatutako ordenagailuak, bulegoko materiala, telefonoak, fotokopiagailuak, aulkiak, walkie talkie-ak, eta abar.

## **B/** **LANTALDEA**

Ahal den neurrian, lehen esku-hartzeko talde bat sortuko da; langileen artean edo bildumenekin kontaktuan egon diren pertsonen artean koronabirusak kutsatutako kasu bat baieztatzen bada, talde horrek azkar erantzungo du, kultura-ondasunak eta/edo espazioak isolatuz eta, larrialdiaren arabera, berehalako garbiketa eta/edo desinfekzioa aginduz.

## **C/** **ESPAZIOAK**

- 2 metroko urruntze soziala gordetzea.
- Ahal denean, aireberritzea bermatzea.
- Prebentzio-neurri gisa, espazio espezifiko bat egokituko da, objektuaren izaerak hala ahalbidetu edo eskatzen duenean, kultura-ondasuna isolatzeko erabili/eskuztatu ondoren, haren jatorrizko lekura eramán ezin bada.
- Instalazioetan, kartelak jarriko dira, erraz ikusteko lekuetan, neurri higieniko-sanitarioei eta neurriok aplikatzeko moduari buruzkoak.

## **Kultura-ondasunak kontsultatzea, koronabirusa kutsatzeko arriskuak dirauen bitartean.**

### ***A.-Kontsulta egiteko modua:***

Zentroak jarduerara itzultzen direnean, bereizketa egin beharko da erakundearen barruko eta kanpoko langileen artean.

- Lehenetsuna emango zaio formatu digitalari, bildumetarako eta agiritegi eta liburutegien funtsetarako sarbideari dagokionez.
- Trantsizio-epean, ahalik eta gehien mugatuko da kultura-ondasunak in situ kontsultatzea. Ondasunaren izaeraren arabera, aldi baterako ukatu ahal izango da kultura-ondasun jakin batzuk kontsultatzea.
- Zentro bakoitzak hauek zehaztuko ditu:
  - Aurrez aurreko zein kontsulta-zerbitzu eman ditzakeen, eta zein ez.
  - Zein zerbitzu eman ditzakeen modu birtualean.
  - Haien berezitasunagatik zein bilduma ezin diren kontsultatu trantsizio-epean zehar.
- Informazioa ematea, erakundearen web-orrian eta telefonoz, denboraldi horretan emango diren zerbitzuei buruz eta emateko moduari buruz.
- Kontsulta aurretiazko hitzorduaren bidez itunduko da.
- Erabiltzaileak maskara eta eskularruak jantzita joango dira; horrek ez du esan nahi piezak ukitu ahal izango dituztenik, baizik eta teknikariek emandako gomendioei jarraitu beharko dietela.
- Kanpoko erabiltzaile batek ukitutako ondasunak isolatuko dira, kontuan hartuta kultura-ondasunaren eraikuntza-materiala (egurra, harria, metalak, materia batzuk, eta abar)

### ***B.-Kontsultarako espazioak:***

Halako espaziorik ez badago, gomendatzen da kultura-ondasunen kontsultarako berariazko espazio bat egokitzea, zeina ez den izango biltegi-eremu bat edo zentroko langileen ohiko lan-eremu bat.

### ***C.-Erabiltzaileen/ikertzaileen erregistroak:***

Bildumak dituzten museoko barne-espazioetara/instalazioetara (liburutegia barne) sartzen diren kanpoko pertsonen eta barruko langileen erregistro bat eramango da, bai eta kontsultatzen/eskuztatzen diren kultura-ondasunena ere.



## 2.4 PUBLIKOA

Bisitei eta museoan egin daitezkeen beste jarduera batzuei dagokienez, oro har, honako alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

- Bisita familia batek edo elkarrekin bizi diren pertsona batzuek batera egin ahal izango dute.
- Bisitariak, ibili bitartean, 2 metroko distantzia gordeko dute beren artean, edo bizikide-talde desberdinen artean.
- Areto bakoitzean, zaindarien oharrak izango dituzte elkartu daitezkeen bisitarien gehieneko kopuruari buruz, metaketak saihesteko. Betiere, okupazioak pertsona arteko distantziaren betekizunak bete beharko du (2 metro, gutxi gorabehera).
- Bisitariak arreta emateko langileak publikoari gogoraraziko diote beharrezkoa dela jarraibide horiek betetzea

Zehatz ditzagun, orain, proposamenetako batzuk:

### **BISITAREN AURREKO NEURRIAK**

---

#### **Sarbidea.**

- Museoan sarrera bat baino gehiago badago, bakarra erabiliko da

#### **Ordutegiei dagokienez.**

- Ordutegi berriak ezartzea
- Adinaren arabera bisita-zerrendak ezartzea

#### **Prezioari dagokionez.**

- Museoen eta zentroyen doakotasuna.

**Bisitariak zeina bere maskarekin joango dira. Museoan batzuk egongo dira, erreserban, maskarik gabe doazenentzat.**

**Eskuak desinfektatzeko gel-ontziak jartzea zentroko areto guztietan.**

**Erakusketa iraunkorreko objektuen karteletako informazioa sendotzea.**

**Langileei interkomunikazio-gailua ematea edukierak kontrolatzeko.**

**Areto bakoitzerako megafonia indibiduala.**

**Bisitariei informazioa ematea jokabide-arauei, instalazioen erabileraren inguruko araei eta bisitari buruz (COVID19a dela-eta).**

**Web-orriak eta sare sozialak erabiltzea informazioa emateko.**

**Areto guztietan hartu beharreko babes-neurriei buruzko informazio-kartelak jartzea.**

- Kartel laburrak eta erraz ulertzeko modukoak (piktogramak..) jartzea.

**Bisitariei arauak jasotzen dituzten informazio-orriak banatzea**

**Guztiontzat diren lekuen kudeaketa**

- Pertsonak museo barruko mugimenduetan eta ilaretan kudeatzeko prebentzio-neurriak hartzea.
- Kartelak erabiltzea.
- Bitarteko autoitsaskorrak erabiltzea.
- Bitarteko fisikoak erabiltzea (piboteak, zintak...)

**Kamera termografikoak jartzea.**

**Ez eskaintzea jantzitegi-zerbitzurik.**

## SARRERAK

---

### Sarreraren erreserba

- *Sarreraren aurretiazko erreserba sustatzea*
  - Telefono bidez
  - Turismo-bulegoen bidez
  - Eskualdeko landa-garapenerako elkarteak erabiliz
  - Telefonoa erabiliz
- *Bisita libreak baino ez aktibatuta.*

### Sarreraren ordainketa

- Sarreraren aurretiazko salmenta (erreserba), definituta dauden ordutegi-tarte jakin batzuen kasuan
- On line saltzeko plataforma sortzea.

### Museoan

- *Sarrerako tiket fisikoa kentzea*
  - Kontabilizatzeko inprimatu behar bada, ez eman
- *Ordainketa bitarteko elektronikoen bidez egitea sustatzea.*  
Bitarteko elektronikoen bidez ordaintzeko jarduketa-protokoloa
  - Txartel bidez ordaintzea sustatzea
  - Aplikazio elektronikoen bidez (BIZUM...) ordaintzea sustatzea
  - Sakelako telefonoaren bidez ordaintzea sustatzea
- *Eskudirutan ordaintzeko jarduketa-protokoloa:*
  - Sarrerak ordaintzeko emandako dirua harreragileak hartuko du, eta kutxa batean gordailutuko da zirrikitu batetik. Inork ez du ukituko diru hori 24 orduko epean; une horretan autodesinfektatuta egongo da.
  - Langileek erretilu batean emango dituzte produktuak eta diru-aldaketak; erretilua erabilera bakoitzaren ondoren desinfektatuko da.

## KULTURA- JARDUERAK

---

COVID 19ak sortutako krisiak eragina izan du museoen ohiko jardunean. Aurreikusitako programazioan ere eragin du krisiak; ondorioz, bizi dugun ezohiko egoera honetara egokitzeko aldaketak egin beharko zaizkio programazio horri, datozen hilabeteetan.

Museoek egin ohi dituzten kultura-jarduerei dagokienez, jarduerok antolatzeke eta gartzeko orduan, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan, besteak beste:

- Hainbat pertsona espazio berean biltzea dakarten ekitaldien kasuan (hezkuntza-jarduerak, hitzaldiak, tailerrak, kontzertuak eta, oro har, programa publikoak), lagun-kopurua mugatuko da, eta pertsona arteko 2 metroko (gutxi gorabehera) distantzia gorde beharko da beti. Gainera, jardueraren deialdian, parte-hartzaileen kopuruari buruzko informazioa emango da.
- Museoko erakustaretoetan egiten diren eta hainbat pertsona biltzen diren jardueren kasuan (bisita gidatuak, piezen inguruko hitzaldiak...), parte-hartzaileen arteko hurbiltze fisikoa saihesteko bestelako formatuak bilatu beharko dira, eta lehentasuna emango zaie modu autonomoan egiteko moduko jardueri.
- Jardueraren formatuak ahalbidetzen badu, aurrez aurrekoa ez den parte-hartzerako kanalak prestatuko dira (streamingean ematea, ondorengo on lineko zabaltzea).
- Hezkuntza-, zientzia- eta zabalkunde-baliabide digitalen diseinua indartuko da; izan ere, baliabideoi esker, museoak aurrez aurrekoak ez diren beste bitarteko batzuen bidez bete ahal izango du bere eginkizuna, hezkuntza-erakunde eta ezagutzaren transmititzaile gisa.

Beti ere, museo bakoitzak ebaluatu beharko du, bere espazioen eta gomendatutako distantzia soziala gordetzeko posibilitatearen arabera, ia bideragarria den kultura- eta hezkuntza- arloko jarduerak egitea konfinamendua arintzeko prozesua guztiz amaitu baino lehen; baietz erabakitzen badu, parte-hartzaileen kopurua zehaztu beharko du.

**Liburutegi, agiritegi edo ikerketa-aretoen kasuan,** zerbitzua ez da aurrez aurre eskainiko, harik eta konfinamendua arintzeko fase guztiak gainditu arte. Hala ere, ahal denean, modu telematikoan erantzungo zaio kontsultari (adibidez: dokumentazio digitalizatuaren eskaerak...).

Museoek eskaintzen dituzten **bestelako zerbitzuen** kasuan —hala nola kafetegi- eta/edo jatetxe-zerbitzua eta liburu-denda— ere bete beharko dira edukiera kontrolatzeko eta pertsona arteko distantzia gordetzeko neurriak, eta azken fasean ireki ahal izango dira (aretoak ireki ondoren), agintaritza eskudunek dekretuz ezarriko dutenaren arabera. Hirugarren batzuek espazioak erabiltzeko, murriztapen berak ezarriko dira edukiera-murrizketari eta pertsona arteko distantziari dagokienez.

Zehatz-mehatz azalduko ditugu adierazitako eremuetako bakoitzean hartu behar diren neurrien proposamenak, programazioaren aldaketekin zerikusia duten alderdiak lehenik aztertuz.

## PROGRAMAZIOA

---

**Lehenengo momentuan, museoak itxi aurretik zeuden erakusketekin irekitzea.**

**Ondoren, apurka-apurka, erakusketa berrien antolaketa zehaztuz joatea;** erakusketa horien egutegi berria hipotesi bat da, estatuko eta nazioarteko agintaritza eskudunek hartuko dituzten erabakien pean egongo baita betiere.

**Data berrien berri emateko eta bisita-baldintzak zein diren jakinarazteko kanpaina espezifikoa egitea hedatze-kanaletan;** hori konfiantza sortzeko tonu batean egingo da, zeinak herritarrak animatuko dituen museoak berriro bisitatzeko beharrezko kautela guztiekin, jakinda babes-neurriak zorrotz aplikatu direla.

## BISITAK

---

**Bisita indibiduala** izan ahal izango da (ez pertsona bakarrak egina, baizik eta bizikidetza-unitate batek egina) **edo taldekoa**, baina zaindu beharrekoak izango dira, beti, gizabanakoen edo bizikidetza-unitateen arteko urruntze-neurri egokiak, eta bisitako 5 pertsonako gehieneko kopurua beteko da.

Bisita gidatuak baimendu ahal izango dira, baina zaindu beharrekoak izango dira, beti, gizabanakoen edo bizikidetza-unitateen arteko urruntze-neurri egokiak eta haien eta gidaren artekoak, eta bisitako 5 pertsonako gehieneko kopurua beteko da.

**Bisita bakoitzean gehienez egon daitezkeen pertsonen kopurua murriztea.**

- Taldeko bost pertsona ezartzea kopuru egokitzat jotzen da gure museo gehienek ezaugarriak kontuan hartuta.

**Plastikozko eskularruak ematea (supermerkatuetan erabiltzen diren motakoak) bisitariei, bisitak dirauen bitartean erabil ditzaten.****Bisiten denbora murriztea.****Atsedeen hartzeko elementuak**

- Esertzeko elementuak eskaintzea modu indibidualizatuan.

**Bisita arteko denbora luzatzea, garbitzeko denbora izateko.****Bisitarien zirkulazioaren noranzko bakarra definitzea**

- Igogailuen erabilera.
- Larrialdietako ateak erabiltzea, sartzeko/irteteko erabili ohi den atearen orde.
- Zirkulaziorako «erreiak» ezartzea.
- Kartelak erabiltzea.
- Bitarteko autoitsaskorrak erabiltzea.
- Bitarteko fisikoak erabiltzea (piboteak, zintak...)
- Gezi bidez seinaleztatzea ibilbidea zein noranzkoa.

**Bisitari laguntzeko baliabideak**

- Gidaren figura kentzea ahal den neurrian
- Materialak ematea —informazio-orriak, adibidez—, publikoak bisita ulertu ahal izateko gida-beharrik gabe.
- Areto bakoitzeko megafonia edo zentro osorakoa erabiltzea
- Bisita egiteko informaziorako sarbidea eskaintzea bitarteko teknologikoen bidez.
  - Bisitarako APP bat sortzea.
  - Norberaren telefonoa autogida gisa erabiltzea.
  - Deskarga daitezkeen txartelen teknologia erabiltzea.
  - QR kodeak aktibatzea.

### **Baliabide museografikoak**

- *Eskaintza ixtea, zeinak barne hartzen dituen VR betaurrekoak edo bildumako ukitzeko objektuak.*

### **Ukipen-pantailak**

- Haien erabilera bertan behera uztea.
- Plastikoko eskularruak jartzea halako baliabideetatik hurbil, bisitariak erabili ahal izateko.
- Bisitariak «arkatz» indibidualak ematea museoko ukipen-pantailak erabili ditzaten.
- Gel-banatzailak pantailetatik hurbil jartzea, eta pantailak ukitu aurretik erabiltzera behartzea.

### **Kontrol neurriak**

- *Oro har, museoko edo zentroko langile guztiak arduratuko dira ezarritako arauarekin bat ez datozen jokabideak identifikatzeaz.*
- *Aretoko arduradunak edo eginkizun baliokidea betetzen dutenak arduratuko dira ezarritako arauarekin bat ez datozen jokabideak identifikatzeaz.*

### **Jardueren programa**

#### **- Programazioa berriro konfiguratzeko**

- Erakusketak luzatzea.
- Erakusketa garrantzitsuenak datorren urterago geroratzea.
- Jarduera garrantzitsuenak urteko azken hiruhilekora geroratzea.
- Erakusketak muntatu eta desmuntatzeko protokoloak ezartzea.

### **Aurrez aurreko jardueren orde, on line-ko jarduerak eskaintzea**

#### **o Hezkuntza/Bitartekaritza (jarduera didaktikoak)**

- Umeentzat bakarrik diren jarduerak geldieran uztea, ikasturteari berriro heldu arte.
- Publiko mistoari (helduak eta umeak) zuzendutako jarduera guztiak irailera arte geldieran uztea.
- Helduentzako jarduerari eustea.

**- Aire zabaleko jarduerak:**

- Aire zabaleko jarduerari eustea.
- Segurtasun-tarteak gordetzea eta osasun-agintarietako emandako neurriei buruzko xedapen orokorrak betetzea.
- Garraioa behar duten ibilbideen kasuan, ibilgailu pribatuaren erabilera sustatzea.
- Osasun-agintarietako ezarritako xedapenak zorrotz betetzea.

**Museoaren komunitatearekiko harremana areagotzea**

**Lanak indartzea bildumekin eta ikerketarekin**

## ZABALKUNDEA

---

On line-ko jardunari eustea.

Museoen publizitate- eta zabalkunde-kanpaina: espazio seguruak eta aisialdirako beste aukera bat direlako mezua.

Barruko turismoa bultzatzeko BFAREN kanpaina aprobetxatzea.

## IKERKETA

---

Aurretiazko hitzorduarekin bakarrik.



## EKITALDIAK

---

Ez da egongo jendaurreko ekitaldi jendetsurik, ez propiorik, ez beste eragile batzuek antolatutakorik.

Espazioen erabilera-arauei buruzko informazioa ematea (ahozkoa zein idatzia) ekitaldiak/jarduerak egiteko eskatzen duten erakundeei.

Osasun-agintarien xedapenak betez, gehieneko parte-hartzaile kopuru bat ezartzea, bereziki, pertsona artean gorde beharreko distantzia-tarteari dagokionez.

Ordutegiak ezartzea.

## BESTE GOMENDIO BATZUK

---

Ahalik eta lasterren ezartzea museoa irekitzeko data, ekainaren 1etik aurrerakoa; horretarako, data betetzeko behar diren neurriak hartzea eta zabalkunde-lan egokia egitea.

Ahal den guztietan, tokiko enpresek garatutako teknologia eskuratzea.

Hizkuntza-eskubideak bermatzea.

03

**MUSEOEN  
ETORKIZUNARI  
BURUZKO  
GOGOETA BATZUK**

Museoek martxoaren 14an itxi zizkioten ateak publikoari, osasun-agintarien xedapenak betetzeko. Hala ere, ez zioten lanari utzi, eta beren eginkizun nagusia betetzen jarraitu zuten: gure kultura-ondarea zabaldu. Zentroetako profesionalek, lanarekiko zein gizartearekiko konpromiso handia erakutsiz eta egokitze gaitasun handia agertuz, aurrez aurreko lana on line bihurtu zuten, halako modalitateko jarduerak indartuz eta hezkuntza-, kultura- eta aisialdiko-eskaintza zabala plazaratuz. Inguruabar berezi horietan izandako jokabidea eredugarria izan zen: gizartearekin konpromisoa hartu zuten, eta beren lanaren eta kultura-zentroen edukien onena eskaini zuten, guztiok tresna erakargarri eta interesgarriak eduki genitzan kofinamendu zorrotzeko momentuetan.

Museoek gaitasuna dute beren burua berriro sortzeko —etengabe egiten izan dutenez— eta egoera honetatik indarturik ateratzeko. Erakunde estatikotzat jotzen ditugun arren, dinamismoaren eta topaketaren eredu dira; beraz, irekita daude garai berrietako beharizanetara, eta berriro agertuko dira dauden eta sortu dituen gizartearen zerbitzura dauden hurbileko erakunde gisa. Dagoeneko erakutsi dute.

Dirudienez, hurbileneko etorkizunak behartuko gaitu erakusketa handien ideiarekin eta gure lurraldeko museo handietako bisitari-zifra eskergen ideiarekin ahaztera. Museo txiki eta ertainen kasuan, edukiera murrizteak berekin ekarriko du bisitariak hartzeko gaitasunak ere txikitzea. Eta baliabide ekonomikoen urritzeak eragina izango du haietan guztietan.

Ez dakigu nolakoa den gaur egun bizi dugun egoeraren bilakaera, ez eta momentu batean museo-jarduerari dagokionez orain arte ezagutu dugun normaltasunera iritsiko garen ere. Ziur aski, unea da «pandemiaren osteko museoa»ren lehentasunei buruz eta interakzio sozialerako forma berriei buruz patxadaz eta denon artean hausnartzeko, bildumen tratamendu digitalean aurrera egiteko eta museoaren edukiak irudimenezko modu batean eskaintzeko komunikazio birtualeko forma batzuen bidez. Garaia da, oro bat, museoen barruan bilaketa egiteko eta gehiago azpimarratzeko gure langileen balioa, bilduma propioen balioa, gure funts propioen ikerketarena eta bistari-kopuru mugatua duten jarduerena; zehazki, mugatuak izateagatik dituzte jarduera horiek kalitateko estandar-maila altuagoak eta bilduma, museo eta bisitariaren arteko interakzio handiagoa. Normaltasuna erabat berreskuratzen denean gure ondarea zabaltzeko prestatzeko unea ere bada.

Momentuabaliatu behar dugugizarteakgurezentroak baloratzeko, ez bisitarien zifra bikainengatik, baizik eta eskainitako programazioaren kalitateagatik, zabaldutako ezagutzagatik, gizarteari eskainitako alternatiba aberasgarriagatik eta gure ingurunearen balioei eta ezaugarriei dagokienez egiten dugun transmisio-lanagatik. Batez ere horiek direlako gure museoen balioak. Eta irakatsi eta ikasi behar dugu haiei lehentasuna ematen. Lortzen badugu, horrek onura ekarriko digu guztioi, eta indartsuago egingo gaitu gizarte moduan.

Museoen Nazioarteko Kontseiluak adierazi duenez, krisi honek berreskuratze-prozesu luze eta konplexu bat utzi digu. Museoek, guztientzat trukerako eta jakintzarako leku paregabeak diren aldetik, funtsezko eginkizuna izango dute ukitutako erkidegoen gizarte-ehuna konpontzen eta sendotzen.

## KONTSULTATUTAKO DOKUMENTAZIOA

---

- *Normaltasun berriranzko trantsizioa egiteko plana 2020ko apirilaren 28koa.* Espainiako Gobernua
- *SND/399/2020 Agindua, maiatzaren 9koa.* BOEren 130. zk.
- *SND/414/2020 Agindua, maiatzaren 16koa.* BOEren 138. zk.
- *SND/422/2020 Agindua, maiatzaren 20koa.* BOEren 142. zk.
- *8/2020 Dekretua, maiatzaren 10ekoa.* EHAAREN 87. zk.
- *Arte Ederren Zuzendaritza Nagusiaren menpeko estatuaren titulartasuneko eta kudeaketako museoak berriri irekitzeko neurrien plangintza.* Kultura eta Kirol Ministerioa. Estatuko Museoen Zuzendariordetza Nagusia. Madril, 2020.
- *«COVID 19ak sortutako krisia dela-eta kultura-ondasunak desinfektatzeko prozedurei buruzko gomendioak» - Kultura eta Kirol Ministerioa. Espainiako Kultura Ondarearen Institutua.*
- *Museoak berriri irekitzeko protokolorako proposamena. Eusko Jaurlaritza. 2020ko maiatzaren 15ekoa.*
- *Considerations for museum reopening.* American Alliance of Museums.
- *COVID 19ari buruzko txostena.* ICOM Espainia.
- *Katrin Hiekeren oharra (Ice Age Europe Network), Alemaniako museoek hartutako neurriei buruzkoak.*
- *PRL COVID 19 zerbitzu integrala.* IMQ.

## ESKERRAK

Agiri honek Eusko Jaurlaritzaren Osasun sailaren oneritzia du. Dokumentu hau honako museo hauen ekarpenei esker egin ahal izan da:

AGURTZA ITSASONTZIA - PESQUERO AGURTZA

ANTZASTI EUSKALDUNON ETXEA

ATHLETIC-CLUB MUSEOA

AUTOMOBIL ZAHAR ETA KLASIKOEN MUSEOA - MUSEO DE COCHES ANTIGUOS Y CLÁSICOS

BALMASEDAKO HISTORIAREN MUSEOA - MUSEO DE HISTORIA DE BALMASEDA

BALMASEDAKO PASIO BIZIDUNAREN MUSEOA - MUSEO DE LA PASIÓN VIVIENTE DE BALMASEDA

BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA - MUSEO DE BELLAS ARTES DE BILBAO

BILBOKO BERREGINEN MUSEOA - MUSEO DE REPRODUCCIONES DE BILBAO

BIZKAIA ZUBIA - PUENTE BIZKAIA

BURDIN HESIAREN OROIMENAREN MUSEOA - MUSEO MEMORIAL DEL CINTURON DE HIERRO

DOLOMITEN AINTZINAKO FABRIKAREN MUSEOA - MUSEO ANTIGUA FÁBRICA DE DOLOMITAS

DURANGOKO ARTE ETA HISTORIA MUSEOA - MUSEO DE ARTE E HISTORIA DE DURANGO

ELEIZ MUSEOA - MUSEO DE ARTE SACRO

ENKARTERRIETAKO MUSEOA - MUSEO DE LAS ENCARTACIONES

EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA

EUSKAL HERRIKO MEATZARITZAREN MUSEOA - MUSEO DE LA MINERIA DEL PAIS VASCO

EUSKAL MUSEOA BILBAO - MUSEO VASCO

EUSKARAREN ETXEA

GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOA - MUSEO DE LA PAZ DE GERNIKA

GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA

HONTZA MUSEOA

ITSASMUSEUM BILBAO

MEDIKUNTZA HISTORIAREN EUSKAL MUSEOA - MUSEO VASCO DE LA HISTORIA DE LA MEDICINA

NATURA HISTORIAREN MUSEOA "ANDRÉS DE URDANETA" - MUSEO DE HISTORIA NATURAL "ANDRÉS DE URDANETA".

OROZKOKO MUSEOA - MUSEO DE OROZKO

PLASENTIA BUTRON MUSEOA - MUSEO PLASENTIA BUTRÓN

RIALIA INDUSTRIA MUSEOA - MUSEO DE LA INDUSTRIA

SANTURTZI ITSASOA MUSEOA

SIMON BOLIVAR MUSEOA - MUSEO SIMON BOLIVAR

LA ENCARTADA FABRIKA-MUSEOA

ARKEOLOGI MUSEOA

MUSEO DEL TXAKOLI-TXAKOLINGUNEA

MUSEO-FERRERÍA EL POBAL

SANTIMAMIÑE KOBIA

ARRANTZALEEN MUSEOA

EUSKAL HERRIA MUSEOA



## **BUELTARAKO**

Berriro irekitzeko Bizkaiko museoetan  
hartu behar diren neurrien  
proposamena.